

TXIKI-TXOKO BEZEROAREKIKO HARREMANA

BEZEROAREKIKO HARREMANA

Bezero berriak lortzeko ekintzak



Publizitatea:

Instagramen iragarkiak jarriko ditugu akademia ezagutzera emateko. Horrez gain, tokiko aldizkarietan edo auzo buletinetan gure iragarkia argitaratuko dugu, jende gehiagorengana iristeko.

Flyerrak eta kartelak:

Polikiroldegian, ikastoletan eta inguruko beste toki aproposetan flyerrak eta kartelak banatuko ditugu. Material bisual erakargarria erabiliko dugu arreta deitzeko.



Ate irekiak eta aurkezpenak:

Gurasoei akademia ezagutzeko aukera emateko, ate irekiak antolatuko ditugu. Ekitaldi hauetan, gure zerbitzuak eta espazioak aurkezteko aurkezpen laburrak eskainiko ditugu.

Azokak eta ekitaldiak:

Leioan edo inguruko herrietan egiten diren azoketan parte hartuko dugu akademia ezagutarazteko. Gainera, tailer txikiak edo jarduera dibertigarriak antolatuko ditugu haurrentzat, gure metodoak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dezaten.

Bezeroak fidelizatzeko ekintzak



Arreta hurbila eta pertsonalizatua:

Gurasoen eta haurren beharrak entzun eta haiei egokitutako arreta eskainiko diegu. Era berean, gurasoei maiz hitz egingo dugu, zer moduz doazen jakiteko eta iritziak jasotzeko.

Kalitatea mantendu eta berritu:


Zerbitzu onenak eskaintzea gure lehentasuna izango da. Hori lortzeko, material berriak gehituko ditugu, haurrek beti zerbait interesgarria aurki dezaten. Halaber, ekintza berriak antolatuko ditugu, hala nola tailerrak edo jolas bereziak.

Deskontuak eta sariak:

Beste haur bat ekartzen duten familiei opari edo deskontu bat eskainiko diegu. Gainera, martxan dagoenean, anai-arrebak matrikulatzean deskontuak aplikatuko dira.

Salmenta ondorengo zerbitzua:

Gurasoei aldizka informazioa emango diegu haien seme-alaben bilakaerari buruz. Haurrek akademiatik irteten badira ere, beste ekintzetan parte hartzeko gonbidapenak bidaliko dizkiegu.



Komunitatea sortu:

Gurasoen arteko harremanak indartzeko ekintzak antolatuko ditugu, hala nola, tailerrak edo hitzaldiak. Gainera, sare sozialetan eduki interesgarria partekatuko dugu, harremana aktibo mantentzeko. Helburua da gurasoei eta haurrei esperientzia atsegina eta giro ona eskaintzea, beti itzuli nahi izan dezaten.





**EDOZEIN UMERENTZAT EGOKITUTAKO AKADEMIA, GARAPEN
INTELEKTUALEAN LAGUNTZEN DIENA**

Etxeko lanekin laguntzen diegu eta beste hurrekin denbora pasatzen
dute, **TEKNOLOGIARIK GABEKO** akademia da

Kokapena: Jose Ramon Aketxe Plaza 10, 48940 Centro Civico, Bizkaia

Adina: 14 urterarte

Instagrama: txiki.txoko_akademia

Helbide elektronikoa: txiki.txokoakademia@gmail.com

